

ESANAK



MANUEL MONTERO
(Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea)

«Adostasunera heltzeko gertu nago, erabat. Afera konponduko bada, elkarriketak lortuko baitu»

«Beharrezkoa da ika-mika ixtea, baina argi eta garbi edukita non diren Unibertsitate autonomiaren mugak»

«Sailburuak ezezko borobila eman zidan, osagarriak ez pagatzea otsailean proposatu nionean»

«(Administrazioak) emandako irudi txarra nigandik urrunago joan da»



ANJELES IZTUETA
(Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua)

«Ezin uka arazo potoloa dugula, baina pausoz pauso joango gara batzordean konponbidea lortzeko asmoz»

«Auzia ez da bi agintariren arteko ika-mika izan, askoz ardura handiagoko kontua baizik»

«Ez gaude osagarrien aurka, baina baldintzak ditu horrek, diruz finantzatu ahal izatea, kasurako»

«EHUko errektoreak kudeaketa kezkarria egin duela iruditzen zaigu»

eman zituen hiru orduko saioan.

EHUko errektorearen mezu nagusia izan zen, sailburuaren modura, hiruko batzordean sinesten duela akordioak lortzeko gune bezala, baina ez zuen agerraldia alperrik galdu La-kuari kritika batzuk egiteko.

«Adostasunera heltzeko gertu nago, erabat. Afera konponduko bada, elkarriketaren bidez izango baita», esan zuen errektoreak. Monterok «behar-beharrezkotzat» jo zuen «ika-mika behingoz» ixtea, «baina Unibertsitatearen autonomia-ren mugak, (Jaurlaritzak) non diren argi eta garbi edukita».

Errektoreak, bada, negozioaren aldeko aurpegia erakutsi zuen, baina, hori bai, Iztueta-ren taldeari makina bat kritika egin ondotik. Adibidez, Administrazioak EHUri ematen dion diru tratamendua auzitan jarri zuen: 1995etik 2002ra bitartean, Hezkuntza Sailaren aurrekontua %32 igo da; eta EHUrenak, berriz, %12ko gorakada baino ez duela izan jakinarazi zuen. Gauzak horrela, «konponbiderik aurkitu ezean», errektoreak aipatu zuen «2003.

urteko finantza egoera oso larria» izango dela.

Administrazio eta Zerbitzuetako langileen aferari dagokionez ere, «arazo garrantzitsua» dagoela esan zuen: «Erabaki politikoa behar dugu problema konpontzen hasteko. Bestela, ikerketak geldiaraztea eragin dezake laster batean».

«Gizarte gatazka larria»

Azkenean, errektoreak irakaseen osagarrien gaia ukitu zuen, eta Administrazioak lagunduko ez balio, aurreikuspen beltzak aitatu zituen. «Gizarte gatazka larria izango da osagarriak bertan behera lagaz gero», adierazi zuen errektoretza taldeko Victor Urrutiak.

Are gehiago, Monterok azaldu zuen aurtengo otsailean Iztueta-ri berari proposatu ziola, diru egoera zaila ikusita, osagarriak ez pagatzea. «Sailburuak ezezko borobila eman zidan», erantsi zuen. Monterok «hainbat alorretan gestio bikaina» egin duela esan zuen, eta kontseilariari eskatu zion erakundearen izen ona bere tokian jartzea, «emandako irudi txarra nigandik urrunago joan baita».



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Manuel Montero EHUko errektorea bere taldeko kideekin azaldu zen batzordera.

Bilbon, zurekin dago Bilbogas



Edonora zoazela ere, Bilbon, gas naturalaren erosotasun guztia eskaintzen dizu **Bilbogasek**. Udala, Aldundia, Eusko Jaurlaritza, museoak, zineak, antzokiak, jatetxeak, ikastetxeak... Badira 10 urte milaka eta milaka bilbotarri beroa eta ongizatea eramaten diela. Gaur egun, gero eta pertsona, enpresa eta erakunde gehiagok dute konfiantza **Bilbogasen**.

Bilbon, zurekin dago Bilbogas.



BilboGas
CONFORT NATURAL